

Jarduera ugari Andoaingo Gazte Lokalean, urteurrenaren atarian

Halloween gauaren ospakizunarekin, ekitaldiz beteriko hilabeteari hasiera emango diote.

Andoaindarrak izar talentu lehiaketa, era-so sexisten aurrean kontzientzia pizteko *Hilabete morea* egitas-moa eta Gazte Lokala sortu zeneko XIV. urteurreneko ospakizunak bata bestearen aztetik burutuko dira Andoainen. Nera-bezarotik heldutasunera doazen neska-mutilentzat aisialdi eskaintza aparta izango da.

Parte hartzen edota ikusle modura ere, herrian kantari eta dantzari aritzen direnen artean talentu lehiaketa deitu dute. Izen ematea laster amaituko da eta euren artea ikusteko aukera izango da azaroaren 21ean eta 28an.

Andoainen bezala hainbat txokoetan ere, emakumeengana indarkeriaren kontrako jarduerak burutzen dira azaroan. Hilaren 25a nazioarteko eguna da, baina horren aurretik herrian jarduera ezberdinak antolatu dituzte. Datozen zortzi egunetan ligatzeko tailerra, bi-



Halloween gaua Gazte Lokalean, azarorako iragarri dituzten ekitaldi guztien abiapuntua izan zen.

Ohiko egitasmoetatik aldentzen delako eta herrikide guztien arreta piztu dezakeelako, "Andoaindarrak izar" lehiaketak herrikideen interesa piztea nahiko lukete

deo emanaldia eta autodefentsa ikastaroak antolatuko dituzte.

Azaroa hilabete oparoa izango da, Gazte Lokala ireki zene-

ko urteurrena ospatzen baita. Dagoeneko hamalagarrena da. Hori dela eta, azaroaren 15ean egun osoko irteera egingo dute Nafarroa iparraldeko Irisarriland natur parkera. Besteak beste, tirolina handiena aurkitzen da bertan. Asteburua borobiltzeko, azaroaren 16an merienda egingo dute Gazte Lokalean bertan.

Sortu zenetik Udal zerbitzuetik ehunka ikasle igaro dira, eta

bistan da adin tarte baten aisialdian zegoen hutsune handia betetzen ari dela. Ohiko egitasmoetatik aldentzen delako eta herrikide guztien arreta piztu dezakeelako, "Andoaindarrak izar" lehiaketak herrikideen interesa piztea nahiko lukete. 12-18 urte bitarteko gazteak artisten pare arituko dira kantuan, dantzan edota aukeratzen duten beste jardueraren batean.

[ESKUALDEA, 7. ORRIALDEA]

Udal antzerki tailerra

Azaroaren 14an abiatuko da Urnietako antzerki tailerra. Ostiralero bi orduz antzerki-gintzan trebatzeko aukera izango da, Mikel Agirrego-mezkortaren eskutik.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

Salesiar izpirituak kementsu darrai

Iragan oparoa etorkizunera bideratu nahi dute Salesiar ikastetxean, ireki zuteneko 50. urteurreneko ekitaldi nagusian ikus ahal izan zenez.

[URNIETA, 2. ORRIALDEA]

Talo jatea Urnietan

Larunbat honetan Xauxar tabernaren inguruan herriko talogileek Pausokaren aldeko talo jatea antolatu dute.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

Apelliduak abizendu

Zalakain Jauregi Arregi Agirre
Zalakain Jauregi Arregi Agirre
Aspilikueta Etxeberria Lekuona Erkizia
Aspilikueta Etxeberria Lekuona Erkizia

Zer egin behar duzu abizena euskaraz idazteko?

Bake Epaitegira joan eta eskaera egin. Bertan egingo dizute aldaketa.

Zer eraman behar duzu herriko Bake Epaitegira?

- Errola agiria (Udaletxeko bulegoetan egingo dizute).
- NANren fotokopia.
- Jaiotzagiri literala.
- Familia liburua (ezkonduta bazaude edo seme-alabarik baldin baduzu).

Agiri ofizialetan zure abizena euskarazko grafiaz jartzea oso erraza da.



Urnietako Udala



ANDOAINGO UDALA

Euskararen Normalizaziorako Lansaila



URNIETAKO SALESIARRAK 1964-2014

Salesiarren izpiritua kementsu ageri da 50 urte eta gero

Salesiar ikastetxeko ekitaldi aretoan berrogeita hamargarren urteurreneko ekitaldi nagusia ospatu zuten, urriaren 24an. Etxe barruko eta kanpoko solaskideek hartu zuten hitza, iraganari buruz-

ko aipamenak egin eta etorkizunera begira jarritz. Iragan sendoa du salesiar ikastetxeak Urnietan, eta oraina ez da gutxiagorako. Atse-denik hartu gabe, etorkizunari kementsu heldu nahi diote.



Angel Miranda Urnietako salesiar komunitateko zuzendariak hasiera eman zion ekitaldiari, eta hark aurkeztu zituen mahai buruak. Maila handiko parte hartzea izan zen, honako laukoteak osatuta: **Juan Carlos Perez Godoy** salesiarren ordezkari probintziala, **Jorge Arevalo Turrillas** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako sailburu-ordea, **Vicente Zaragüeta Laffitte** Donostiako Aquariumeko lehendakaria eta proiektuaren ongilea (bere osaba-izebak dirua jarri zuten ikastetxea eraikitzeko) eta **Jose Luis Pinedo Fernandez** ikastetxeko zuzendaria. Ekitaldi instituzionalari agurrarekin eman zioten hasiera. **Irene Larrañaga** diseinu grafikoko ikaslearen txistu doinuekin dantzari dotore aritu zen **Amaia Iruiria** irakaslea.

“Familian, atariko eta protokolo handirik gabe, etxean bezala senti zaitezte. Don Boscoren etxean, ekitaldi akademiko hutsaz haratago doa gaurko ekitaldia. Eskerrik asko hona etortzeagatik”, Angel Mirandaren lehen hitzak izan ziren horietan. Urteak azkar doazela eta, bizitzaren aldeko hitzak izan zituen, “ikastetxea eraiki zenetik 50 urte igaro dira eta polita da urte horiek guztiak bizitzaz betera igaro direla ikustea”. Aita Beobide, Pedro Zaragüeta, Conchita Egia, 80tik gora salesiarrak eta Maria Auxiliadoraren alabak..., begirada atzera bota eta bidegile haiek guztiak gogoan izan



Salesiar ikastetxeak urteurren ekitaldirako gertuko eta lagun asko bildu zituen, aurreko urriaren 24an egin zuten ekitaldian.

“Ikastetxea eraiki zenetik 50 urte igaro dira eta polita da urte horiek guztiak bizitzaz betera igaro direla ikustea”

Angel Miranda

zituen. Milaka izango dira ikastetxetik igaro diren ikasleak, “salesiar etxean oraina eta etorkizuna aurkitu dutenak”. Oinarrietako bat horixe izan baita ibilbide osoan, “gure zerbitzari bokazioa berritzeko gazteekin eta gazteentzat lan egitea”.

Jarraian, Juan Carlos Perez Godoy salesiarren ordezkari probintzialak hartu zuen hitza. “Etxera iritsi eta amaitu gabe zegoen”, Jose Priederen hitzak gogoan hartuz abiatu zuen bere hitzaldia. “Gaur hemen gaudela eta beharbada esan beharko genuke etxea ez dagoela amaituta. Eta ez bereziki utzikieriatatik, edo axolagabekieriatatik, ... Ez da amaitu, salesiarren etxea ez delako soilik bera bil-tzen dituen lau paretak. Bere

hezkuntza eta pastoral misioa ere bada. Salesiarren jarduerak beti eta etengabe gazteen egoerara egokitu behar du, haiek baitira salesiarren hezkuntza sistemaren erdigunea”.

Unerik atseginenak Vicente Zaragüetaren hitzaldiarekin iritsi ziren. Adinean gora egiteak eskaintzen duen askatasunarekin, protokolo guztiak hautsi zituen. Haren osaba eta izebak emandako diruarekin, Aita Beobideren ametsa egi bihurtu zen. 50 urte atzera, Vicente gaztea zen eta bere Lambrettan makina bidaia egin zituen Urnietara. Bertaratutakoen irriak bereganatu zituen bere kontakizunekin. Aipaturiko guztietatik beharbada esanguratsuen hizketaldiaren hasieran esan zuen. Bertaratutako guztiei ausart jokatzeko eskatu zien, “gutako bakoitzak arrano bat dugu barruan. Lo daukagu beharbada, baina esnarazi beharra dago goi-goitik hegan egiteko. Altueretatik beste ikuspegi batekin ikusten dira gauzak. Gizarte honetan artaldean nahi gaituzte, eta artalde-

“Salesiarren jarduerak beti eta etengabe gazteen egoerara egokitu behar du, haiek baitira hezkuntza sistemaren erdigunea”

Juan Carlos Perez Godoy

atik ateraz gero zartakoa ematen digute. Eta horrela, artaldean gauden bitartean, ikuskitun tamalgarriak ikusten ari gara”.

Jose Luis Pinedo Fernandez ikastetxeko zuzendariak aurretik izan zituen lana eskertu zuen, haiei esker ikastetxeak ospea hartu duelako. “Iraganaz harro, etorkizunaren eraikitzaile” ikasle talde batek proposatu zuen leloa bere egin zuen. Etor-kizunera begira irakaskuntza-ren gatzetatsuna eta prestakun-tza nabarmendu zituen, “orain 50 urte abian jarritako misioak aurrera egin dezan”.

Ekitaldiari amaiera emateko Jorge Arevalo Turrillas Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako sailburu-ordeak hitza hartu zuen salesiarren lana goraipa-

tzeko, “Salesiarrak konpromiso hutsa dira. Hainbeste jenderi arrazoi osoz entzuten diogu, prestakuntza aldetik, inoiz izan dugun gazteriarik onena dugula. Eta hori ezinezkoa litzateke salesiarren parte hartzerik gabe. Beste batzuk ere egon badaude, noski, baina salesiarrak oso garrantzitsuak izan dira gazteen formakuntzan. Eta hau bereziki oso nabarmena da Lanbide Heziketan. Zenbatek aurkitu dute lana bertatik igaro ondoren? Askok eta asko dira. Gizartea sortzea hori da, hitz bakarrean, aberastasuna sortzea. Al-daketa garaia bizi dugu, arazo larriekin. Egoerak eraldatzera behartu gaitu, eta alde horretatik Lanbide Heziketa eraldatzen ari gara. Eraldakuntza oinarri sendoez eta ondo pentsatuta ematen ari gara. Beti ere laguntza handia eskaintzen diguten ikastetxeei esker. Eta horien artean salesiarrak daude”.

Txalo artean amaitu zen ekitaldia, hamaiketakoari hasiera eman aurretik.

Odol emaileei omenaldia



Odol emaileen elkarteak herrikide hauek omendu zituen Oianumen egin zuten bazkarian: Julian Aguirre, Rosa

Elosegi, Mikel Izagirre, Jon Martin, Simon Urbizu, M^a Carmen Diez eta Carlos Alamo.

Pausokaren aldeko talo jatea, larunbat honetan

Larunbat honetan Xauxar tabernaren kanpoaldean herriar talde batek talo jatea an-

tolatu du, Pausoka elkarteari laguntzeko xedez. Arratsaldeko 18:30etan hasiko dira.

Dantza afrikarren ikastaro trinkoa azaroaren 15ean



Izena emateko epea zabalik dago.

Buruntzantzan Urnietako Batukada Elkartek antolatuta, Urnietako Udalaren babesarekin, datorren azaroaren 15ean (larunbata) Saroben egingo da Dantza Afrikarren ikastaro trinkoa, Amalur de los Santos irakaslearen esku-

tik, eta zuzeneko perkusiojole profesionalekin. Egun osoko ikastaroa izango da, goizez, 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldeaz 15:00etatik 18:00etara.

Izen ematea jadanik irekita dago, eta azaroaren 12a baino lehen egin behar da, 688 85 33 04 telefonora deituta. Aurrez, ikastaroa ordaindu behar da, izen abizenak aipatuz, Rural Kutxa banketxeko Buruntzatzenen kontu-zenbakian: 3008 0268 43 2920773914. Prezioa, helduak 20 euro. 14-24 urte arteko gazteak, langabetuak eta jubilatutak hamar euro.

Ikastaroa gauzatzeko, gutxieneko 25 pertsonako taldea osatu beharko da. 50 pertsona baino gehiago ez da onartuko.

Nafarroako hegoaldeko euskararen aldeko saskia

Errigora ekimenak Nafarroa helgoaldeko produktuen salmenta sustatu nahi du, eta berarekin batera hango euskaltzaileei babesa eman. 50 euroko saski ederrak eskuratu daitezke egun hauetan, Euskal Herri osoan zabaldu duten kanpainan.

Salmentek emandako irabaziekin euskarazko hiru egitasmo diruz lagunduko dira: Erriberako ikastolak, Erriberako AEK eta Hamaratz euskal egitasmoa.

Saskiaren osagaiak:

2 olio botila (bat ekologikoa), 2 piper poto, potxak, kardabera, mahats zuku ekologikoa, orburuak, 2 zainzuri lata, tomate saltsa ekologikoa, barazki krema ekologikoa, pikillozko marmelada ekologikoa eta ardo beltz botila ekologikoa. Saltokiak hauek dira: Hernaniko AEKn eta Ereñotzuko Irrintzin, eta Andoainen Agro dendan, AEKn eta Aita Larramendi ikastolan.

Ostiralero bi orduz Saroben, Agirregomezkortaren esanetara

Udal antzerki tailerra azaroan abiatuko da

Azaroaren 14an, zehazki, Mikel Agirregomezkortak zuzentzen duen tailerra abiatuko da Saroben. Ostiralero bi orduz elkartuko dira antzerkigintzan trebatu eta praktikatzeko: "Gorputz adierazpena, antzerki jolasa, lotutasunik eza, adierazkortasuna bilatzea, mugimendua, espazioa, ahotsa aurkitzea, testuak interpretatzea... hori guztia azaroaren 14tik aurrera". Izena emateko epea zabalik dago, Saroben bertan.

Ostiraleroko hitzordu horrez gain, hilean behin larunbat batez ikastaro monografikoak antolatzeko asmoa azaldu dute. Deitzaileek azaldu dutenez,



Izena emateko epea zabalik dago, Saroben bertan.

"irakasle espezialistek modu intentsiboan emandako ikastaroak dira, trebakuntza osatzeko eta teknika espezifikoetan sakontzeko".

URNIETAKO UDAL ANTZERKI TAILERRA SAROBEN
Maximo Iurramendi,2.
943 00 80 42.
www.sarobe.info.

%0 MERKATARITZA

BIZIA

%100 MERKATARITZA

BIZIA

>>> Ikusten duzu aldea?
Zure esku ere badago

ZURE SALTOKIA ETA ZU

PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



IÑAKI ARANZADI • URNIETA

Aita Xalbador eta bere seme Mixel

Demagun badela aizkolari bat benetan iaioa kanako egurak moztan eta abar, abildade guztiak ditu horretarako baina txotxak mozteak tokatu zaio bizitza honetan, alferrik galdutako aizkolaria izan da. Era berean bertsolari bat oso abila, bizkorra baina gaia falta izan zaio, inguruko gertaeraren bat, bere barrutik kanpoko gauzak aitzurtzea otu zaio. Alferrik galdutako bertsolaria dirudi baina ez da Xalbadorren kasua. Zein gai ibiltzen zituen ikustea nahikoa da: aita eta ama, bere emaztea eta seme-alabak, bere herria, bere langintza, ardia eta etxola, kirolak, urte-aroak, gertaera nagusiren bat, hizkuntza, maitasuna, Jaungoikoa... Eta hori dena ez jendearen ikuspegitik, bere galbahetik pasa da. Hau da, bere egitekoa erabili duena kanako enborrak mozteko.

Gaur maiorazgoa den semearekiko harremana aztertu nahi dut. Horretarako testuingurua miatu behar da. Euskaldun batentzat zer da baserria? Ama lurra da, ez da zatitu behar puskarik txikiena ere, ez testamentu, ez negozioagatik; etxea da toki sakratua, bertan hilobiratzen dira bertan hildakoak, bertako apaiza etxeko andrea da, bere gain daude errezoak zuzentzea eta erlijiozko eginbeharrak; zuhaitz sakratuekin inguratuta daude baserriak: lizarraz, erramu hostoz, edo eguzki-lorez eta abar. Eta hori dena eskaintzen zaio arduradun izateko maiorazgoari, zain dezan milaka urtetan arbasoz arbaso zaindu duten ama lurra.

Xalbador aita da maiorazgoa eta berak eskaini behar dio maiorazgo gazteari, eta kasu honetan Mixel bere semea da. Gai hau aztertzeko bidera zaitez Joxe Migel Barandiaranen liburuetara. Se-

mearekin duen hartu-emana aztertzeko oso kontuan hartu beharrekoa da testuinguru hau; bestela exajerazioa irudituko zaizu eta ez da horrela.

Maiozazgoaren testuingurua jaso ondoren erraza egingo zaizu Xalbador aitaren erresumina konprenitzen. Gordintasun haundia dute bertso hauek: bere mina hitz hauekin azaltzen du: semeak adieraztean ogibidea aitzakitza hartuz Ameriketara dijoala bere sendia, bere herria eta bere etxea utziaz, bere aitak dio: “hotzikara ilun bat sartu duk etxean; ez ahal haut, gaixoa, betikotz galduko!”. Bera dela lemazain, hi gabe udazkena heldu zaio etxeari, bera da udaberria ekar lezakeena; landu gabeko baratzen ez da lorerik sortzen; bera da lan dezakeena. Eta hemen bertso mingarri bat dago, hitzez hitz hara:

*Entzuten etxeko
agoni ezkila,
bihotzaren pakea
non aurki, non bila?
Ganbarak hutsak eta
sukalde ixila,
biziaren arbola
betikotzat hila,
hori ikusi gabe
lurperat nadila.*

Bere erresumina azaldu ondoren hemen dator bertso-sorta esplikatzen duen bertso altxorra, aurreko bertso eta minaren arrazoiak, bertso hau da kakoa eta beste guztien giltza; orain idatziko det bertso berezi hau, bertso-sortaren ordena ere aldatu egin beharko litzateke, gailurra honek markatzen baitu:

*Baina ez nitek nahi,
o seme maitea,
Desafia dezakan
kontrako haizea:
Sortetxearen karga
bortxarat hartzea,
Hobe baituk hi baino
etxea galtzea,
Nahiz trixtea izan
gure zahartzea.*

Abrahanen seme eskaintzarekin konparatzen det hau, baita “hegoak ebaki banizkio nerea izango zen, menpean egongo zen baina ez zen txoria izango” dioen horrekin, esatean ez desafiatzeko kontrako haizea, aldeko haizea kanpora lanera joatea dela eta tradizioak agintzen bezala behartuz, karga bezala da baserria hartzea.

Haurren gurasoen parte hartzea sustatu nahi dute aurten

Ludoteka bigarren urtez martxan Txoritagainen

Errekalde kaletik Txoritagain auzora pasa zen Urnietako Ludoteka ia. Orain bete dute urtea Arantzubiko erakuntza zaharrean eta aldaketa guztiz positiboa izan dela adierazi du Aitziber Uranga hezitzaileak: “Espazioa, lokala, ingurua..., askoz ere handiagoa eta erosoagoa da”.

Ekintzak egiteko erraztasun handiak dituzte, izan ere, lau gela dituzte nahi duten bezala banatu eta antolatzeko, eta ludoteka inguruak ekintza ezberdinak egiteko aukera eskaintzen die. “Ludotekatik kanpo ere ekintzak egiten ditugunez, haur asko bertaratzen dira eta, azkenaldian, parte hartze handia nabaritu dugu”, azaldu du Aitziberrek.

Jokoen bidez ikastearen garrantzia azpimarratu du: “Gaur egungo haurrek ikastolatik at ekintza asko dituzte, baina denak hezkuntza formalean oinarrituta. Horri aurre



Haurrak Ludoteka berrian.

egin nahi dio ludotekak, izan ere, jokoa oso garrantzitsua da beraien bizitzan eta ikasteko balio die”.

Urtean zehar astelehenetik ostegunera 17:00etatik 19:00etara zabalik dago. Jolas libre, jolas kooperatiboak, mahai jolasak, tailerrak, hila-beteen behin ekintza berezi bat... Denetarik egiten dute. Aurten gainera, gurasoak haurrekin geratzeko aukera eduki-

tzen dutenez, beraien parte hartzea bultzatu nahi dute eta beraiekin tailerrak egiteko asmoa dute.

5-11 urte bitarteko haurrak izaten dituzte bertan, baina Aitziberrek 8-11 urte bitartekoak ludotekara joan daitezela animatu nahi ditu: “Adin horretan, ingelesa dela edo Eskola Kirola dela, ez dute jolasteko denborarik. Badirudi helduak egin direla eta ez dutela jolasteko beharrik, baina hori ez da egia. Oraindik ere jolasaren beharra dute”.

IZENA EMATEKO EPEA

Ludotekara joateko izen ematea ludotekan bertan egin daiteke. Bestalde, Lekaio edo Bertan bulegoetatik matrikulatze orria hartuta ere egin daiteke, baina ordainketa Ludotekan egin beharko da. Urteko kuota 10 eurokoa da. Matrikulatze epea oraintxe amaitu da, baina urtean zehar izena emateko aukera zabalik dute.

Datorren urtekoak ez ohiko batzarraldian onartu zituzten

Tasak eta zergak bere horretan, igoerarik gabe

Urnietako Udalak aho batez onartu zuen 2015ari begira Udal gobernu taldeak proposaturiko tasak eta zergak. **Mari-bel Vaquero** alkate-ordeak eskaini zituen xehetasun nagusiak. Igoerarik ez da izango tasa eta zerga nagusietan, beraz, iaizko diru kopuruei eutsiko zaie. Moldaketa eta hobekuntza batzuk iragarri zituzten, nolana ere. Tramitazio eta kontrol lanerako, esaterako, hobekuntza administratiboak egingo dituzte. Landa gunean zaborretan hiru tasa ezberdin aplikatuzetik bakarra izango da denentzat. Zergen “izozte” horretan salbuespen bakarra izango da, Buruntzaldeko kirol zerbitzuei dagokiena. Zerbitzu hori inguruko udalerriekin adostuta eskaintzen denez, 0,3ko igoera ezarriko dute.

Oposizioaren aldetik, PSE-EEko **Herme Gonzalez** eta EH Bilduko **Xabier Yurramendi** ados

Igoerarik ez da izango tasa eta zerga nagusietan, beraz, iaizko diru kopuruei eutsiko zaie

agertu ziren Ogasun batzorde-tik adostuta iritsi zen proposamenarekin. Bozketan ordezkaritza duten hiru alderdiek proposamena aho batez onartu zuten.

ETXEBIZITZA HUTSAK

Tasak eta zergak erabaki aurretik, EH Bilduk plenora etxebizitza hutsei IBian %50eko igoera ezartzeko proposamena eraman zuen. Euren hitzetan 108 etxebizitza dira hutsak bezala kontsidera daitezkeenak. Horietan guztietan ur kontsumorik ez dagoela kontutan hartu dute. Tolosako Udalaren eredu Urnietan aplikatzea proposatzen zuten, hartara

IBIaren igoerarekin etxebizitzaren jabeak etxebizitza hutsa alokairuan jartzea sustatu asmoz.

PSE-EEk eta EAJ-PNVk proposamenari aurkako botoa emango ziotela iragarri zuten. PSE-EEren aburuz, IBIaren igoera ez da pizgarri bat izango etxebizitzaren jabeentzat. Gaineratu zuten, Udalak eredu izan beharko luke sistema hori aplikatuz gero. Alegia, Udalak alokairuan jarri beharko litzuzkeela hutsik dituen 2-3 etxebizitzak. EAJ-PNVrentzat, IBIaren igoera zigor modukoa da. Haienetzat neurri hori hartzea politika zigortzailea aplikatzea da. Izatekotan, kontrakoa egitea planteatu zuten jeltzaleek. Alegia, bigarren etxebizitza duen jabeari alokairuan jartzeko neurri aringarriak proposatzea. EH Bilduren proposamena ez zen aurrera atera, ez zuelako babesik jasoso.

IKERFOLK TALDEAK ANTOLATU DUEN TAILERRAK HARRERA EZIN HOBEA IZAN DU

Euskal jantziak lantzeko tailerra

Ane Albisuk festarako euskal jantzien inguruko hitzaldia eman zuen asteartean Basteron. Aurtengo Gabonetan edo urtean zehar ospatzen diren euskal kutsuko ekitaldietan "nola jarri zapia?",

"abarkak ala zapatak?" eta antzeko galderei erantzuten saiatu zen. Albisu euskal folklorea bultzatzen duen Ikerfolk elkarteko kidea da, eta euskal jantzi eta janzkera tradizionala jorratzen du bertan.



Ane Albisu.

Tailerraren nondik norakoa laburtuko al zeniguke?

Ane Albisu: Bi zati izan zituen saioak. Lehenengo zatian, gaur egun darabilkigun festarako jantzien sorburua eta bilakae-rari buruz hitz egin nuen alde batetik, eta bestetik, Andoain-go hainbat herritar partaide diren Atontdu ekimenaz. Bigarren zatian hausnarketarako eta praktikatutako aukera izan zuten parte hartzaileak.

Ikerfolk 1985ean sortu genuen, artean Argia dantza taldearen baitan ikerketan genbiltzanok. Juan Antonio Urbel-tzen zuzendaritzapean folklo-rearen hainbat arlori buruzko ikerketak egin eta zabaltzea da gure helburua.

Euskal jantzien inguruan jakin-min handia piztu da.

A.A.: Bai. Zalantzarik gabe, gure lana (Urbeltz eta berarekin lan egiten dugunona) azken 50 urte hauetan gure kultura tradizio-lari dagokionean ezin-besteko erreferente bilakatu

da. Atonduren lanak ildo horri jarraitzen dio eta orain dela 22 urte sorturiko proiektuak goitik behera aldatu du gure festa jantzien panorama.

Eboluziorik egon da, beraz, zuek proposamenak egiten hasi zinetetik?

A.A.: Azken hoge urte hauetan festarako eta dantzarako jantziek bilakaera handia izan dutela esan genezake, zalantzarik gabe. Hala ere, aurreko urteetan izan ziren aldaketa askoren metaketa ere izan dela esango nuke kasu askotan.

Atontdu liburuan diozu, besteak beste, janzkera tradizionalan ere, jantziak pertsonaren eta gizartearen izaera eta egoera adierazten duela.

A.A.: Bai, noski. Janzkera tradizio-nala oso modu zabalean ulertu beharra dago. Etiketa moduan jartzen badugu gaizki ulertuan eroriko ginatkeela-koan nago.

XXI. menderako proposamena egiten duzu. Zenbateraino mantendu behar da XIX. mendeko eta XX. mende hasierako janzkera, zenbateraino "birsortu" behar da gizarte moderno baten estetika-ra edo modetara moldatuz?

A.A.: Mantendu, moldatu..., eta birsortzeko, lehenik ezagutu eta jabetu beharra dago. Kontua da, gure kulturaren beste arlo askotan ez bezala, transmisioa hautsi egin zela. Horrez gain, gureganaino hel-du dena gehienetan XX. men-de hasierako estetika kostun-brista arrotz batetik dator. Horrela, bada, geure ezaugarriak

mantendu zituzten jantzi eta janzkerari antzoki edota festa ikusgarrietarako sortu eta bilakaturiko jantzien aldean balio-rik ez zitzaion esleitzen. Horrek geurearekiko ezjakintasun handia ekarri du.

Atontdu proiektua sortu genuenean, artean ia erabiltzen ez zen hitz horrekin (modan jarri dugula uste dugu) gauza asko adierazi nahi genuen. Alde batetik, fisikoki atontzeari ekin behar geniola, izpiritu berri batekin. Bestetik, gure jantzi eta janzkera tradizionalaren gaia, Etxeparek zioen bezala, plazaratu, bere goren gradura igo eta behar bezala atondurik behar zuen lekua eman behar geniola gure kulturen. Hori horrela izanik, XXI. mendeak ekarriko ditu ekarri beharreko-ak.

Atontzeari, beraz, eman nahi izan zenioten garrantzi berezia.



Atontdu liburuan aurki daitekeen argazkia, Goikoplazan aterata. Ezker-eskuin Nekane Etxabe, Josune Orbegoza, Begoña Ormazabal, Agurtzane Arregi, Amalia Guerrero, Lourdes Mercero, Amaia Setien, Arantxa Iartza eta Mari Karmen Roman.

"Gure proiektua erabat parte hartzailea da eta andoaindarrek jarritzen lehendabiziko harria"

bat maisu eta andereñorekin harremanetan jarri gintuena. Haien ikaragarritzko lanari esker atera ahal izan genuen orain arbola sendo bilakatu den proiektuaren kimua. Gure proiektua erabat parte hartzailea da eta haiek jarri zuten lehendabiziko harria. Ondoren, herrira zabaldu zen eta orain dela urtebete ikastolaren 50. urteurrenean eta orain bi urte Atonduren 22.ean Atontdu proiektuko partaide diren andoaindar kopurua oso handia dela ageri-agerian geratu zen. Hemendik, gure eskerrik beroenak helarazi nahi genizkieke gurekin elkarlanean izan diren eta oraindik ere badiren andoaindar gurtiei.

(B) Diru (B)eltza, etorkizun (B)eltza



"A" gizartea lortzeko eskatu beti faktura

Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.

ZATOZ EKONOMIA GARDENERA

www.ekonomiagardena.net



Gipuzkoa
BERRIA

Galardi Haur eskola

2015eko urtarrilean 0-1 eta 1-2 urteko haurrak Galardin matrikulatzeko epea laster zabalduko dute. Zehazki, azaroaren 24an hasi eta abenduaren 5era arte. Izen-

ematea Basteron egin behar da, goizez eta arratsalde. Bestalde, Haur Eskola eza-gutzeko aukera izango da azaroaren 17an, 16:30etatik 18:30etara.

Xabier Garmendia zendu da



Xabier 2011ko udaberrian.

Aurreko larunbatean hil zen, 59 urte zituela. Maria Jesus Otegi zuen emaztea, eta Enara eta Neide alabak. Hiru biloben aitona ere bazen. Astelehenean Santa Krutz ermitan egin zuten bere arimaren aldeko hileta elizkizuna. Eliza jendez lepo zela egin zitzaion azken agurra; elizkizunean zehar, Kamioi Baby bandeko musikariek eta Txintxarri abesbatzako kideek *Adiskide bat bazen* eta abesti mexikar bat abestu zituzten, une hunkigarriak sortuz.

Giza tratu gozokoa, umila eta alaia zen Garmendia, eta Andoainen atsekabea eragin du bere heriotzak. Kamioilaria zen lanbidez, baina abestea zuen gogoko. Alegiko Txintxarri abesbatzako kide zen aspalditik, baina azken urteetan Santa Krutz eta Sanjuanetan egin zen ospetsua, kalean kantari irteten baitzen Kamioi Baby band taldearekin. Umorea eta musika biak ederki asko uztartzen jakin izan du taldeak, eta andoaindar askorentzat galdu ezineko hitzordu bilakatu izan dira haien kontzertuak. Garmendiak ez zuen

egundoko ahotsik, baina estilo pertsonala erakutsi ohi zuen kantari handien edo mexikar ikutuko kantak interpretatzerakoan. Ausardia eta naturaltasuna erakusten zuen jendeaurrean, halako prestigio handiko musikariak imitatzen hasen zenean.

2011ko Santakruzak zirela eta Aiurriri eskaini zion elkarriketan (267. zbk.) zera zioen: "beti gustatu izan zait abestea, nahiz eta ahots kaskarra izan, eta gainera jendeaurreko eskarmentu askorik ez eduki... Pozik aritzen naiz alde batetik, baina bestetik inork ez dit kentzen edukitzen dudan urduritasuna eta lotsa. Izan ere, ohartzen naiz bandako musikariak oso onak direla, badakitela beren ofizioa, eta ni aldiz, afizionatu hutsa naizela. Iaz uztokotan egon nintzen kezka horiek zirela eta, baina bandakoek segi nezan ia derrihortu egin ninduten; Eugenio Delgado berak ultimatuna planteatu zidan: "zuk uzten baduzu, banda desagertu egingo da".

Euren musika proposamena Andoingo herritarrek primeran hartzen zutela aitortu zuen txanda hartan: "Jendeak estimatzen du musika eta umorea kalera eramatea, eta hori gainera herrikoen eskutik etortzea. Badira espreski gu ikustera kalera irteten direnak. Bestalde, badira guk aktuatzen dugun garaian ingurura arri-matzen ez direnak ere (nire bi alabak, adibidez). Kuriosoena da zenbat jende harritzen den ni abesten ikusten nautenean. Inoiz ez zitzaaien burutik ere pasako irudi hori: ni Sinatra imitatzen "New York, New York" abestuz, adibidez".



Kamioi Baby band taldearekin.

Azaroaren 22rako afaria deitu dute Oianume sagardotegian

1974an jaio zirenei parte hartzeko deialdia



Naiara Lasarte eta Ainhoa Alfonso ekimenaren sustatzaile nagusiak dira Miren Iztueta eta Amaia Gomendioekin batera.

Kinto afaria egingo dute hilaren 22an 1974. urtean jaioetakoek. Afaria antolatzen Ainhoa Alfonso, Naiara Lasarte, Miren Iztueta eta Amaia Gomendio ari dira. Ainhoak eta Naiarak hartu dute hitza afariaren berri emateko.

Zein asmo duzue egun horretarako?

Naiara Lasarte: Arratsaldeko zazpitan Txitibarko plazan elkartuko gara, handik abiatuta poteoa egingo dugu eta Oianumen afalduko dugu. Andoainen jende askorentzat ikusten ez genuelako prentsatu genuen Oianumen afaltzea.

Ainhoa Alfonso: Lehen aldiz egingo dugu afaria eta ez dakigu zenbat izango garen. Horregatik, asko bagara, leku arazorik edukiko ez dugula aurreikusi behar izan dugu. Hobe leku handi bat aukeratzea. Gainera, Oianumek aukera ematen du afal ondoren bertan geratzeko; izan ere, barra eta dantzarako tokia baititu.

N.L.: Jende asko izanda, herrian tabernaz taberna ibiltzea oso deserosoa eta zaila da. Oianumen, beraz, bertatik bertara egingo gara.

Nola joango zarete Oianumera?

N.L.: Jendearen arabera ikusiko dugu autobusa alokatu ala taxi-tan joan. Jendeak ez du kotxearen beharrik izango. Joan eta etorri nola egin aurrerago erabakiko dugu, epea amaituta zenbat jende goazen ikusitakoan.

Lehenengo aldia da afaria egingo duzue. Zer aurreikusten duzue?

A.A.: Ez dakigu. Andoainen ez

"Azaroaren 14an amaitzen da izena emateko epea, eta ordurako, kontu korrontean dirua sartu beharko du joan nahi duenak"

dago ohitura handirik eta auskalo. Kinto afarirako ohitura 50 urtetik gorakoek izaten dute, baina lehenengo aldia da 40 urte ditugunok egingo duguna. Ondo ateratzen bada, jarraituko dugu egiten; agian, urteroko maiztasunarekin ez, baina bi urtez behin, edo bost urtez behin.

N.L.: Guk irekiko diegu ondorengoei 40 urterekin ere afaria egiteko bidea. Ondo ateraz gero, gazteagoak animatuko dira.

Nolatan sortu zen ideia hori?

N.L.: Alde ezberdinetatik sortu da. Gu, lagunartean, asteburu pasaren bat egitea pentsatzen ari ginen. Denbora asko ikusi gabeko lagun batekin topatu eta horiek ere zerbait egiteko asmotan zebiltzala esan zidaten. Hau da, batarekin eta bestearekin topatu eta denok zerbaitetarako asmoa edo gogoia genduela ohartu ginen.

A.A.: Gu orain dela bi urte ikastolako kinto afaria egingo zuten saiatu ginen, baina ez zen ondo atera ez ginelako asko mugitu. Aurten, ordea, 40 urte egitera goazenez berriro saiatzeko asmoa genuen eta Naiarekin hitz eginda, herri mailako kinto afaria egitea adostu genuen. Horrela, elkartu eta antolatzen hasi ginen.

Helburu nagusia aspaldian egon

gabeko lagunekin egotea izango da, ezta?

A.A.: Bai, bada zertan dabilen ere ez dakigun jendea. Aspaldi ikusi gabekoekin hitz egitea eta ondo pasatzea da helburua.

N.L.: Elkarren berri izateko aukera oso ona da.

Zer egin behar du afarira joan nahi duenak?

N.L.: Azaroaren 14an amaitzen da izena emateko epea, eta ordurako, kontu-korrontean dirua sartu beharko du joan nahi duenak. Kartelak kalean jarri ditugu eta bertan dago informazio guztia. Oraindik ez dakigu zenbat jende joango den, ez dut begiratu ere egin; izan ere, badakigu jende asko azkeneko momentuan apuntatuko dela.

Zein mezu zabaldu nahiko zenieke zuen belaunaldikoei?

N.L.: Animateko esan nahiko nieke. Afaria erabat irekia dela. Batetik, herri mailako ekintza bat denez, ikastetxe guztietakoak gonbidatuta daude. Bestetik, ez da andoaindarrentzat soilik. Izan ere, ikastolan ibiltzen gine-nean urnitarrek ere bazeuden tartean eta horiek ere gonbidatuta daude. Beraz, 1974an jaio-tako ikastetxe guztietakoak elkartzea da asmoa.

A.A.: Erabat irekia da, herri mailan egingo dugu. Jendea anima dadila. Pertsona bat bakarrik agian ez da etorriko, baino taldean anima daitezela eta etortzeko. Zailena lehen aldiz egitea izango da, baina ederki pasako dugu eta aurrerantzean ere horrelakoak egingo jarraituko dugu.

1974andoain@gmail.com

HALLOWEEN FESTA EDOTA GAZTE LOKALAREN URTEURRENEKO OSPAKIZUNAK

Ospakizun betean Andoaingo Gazte Lokalean

Andoaingo Gazte Lokalak talentu lehiaketa jarri du martxan herriko 12 eta 18 urte bitarteko gazteentzat. Kantuan, dantzan, bertsotan, antzezten edo beste edozein alorretan talentua duenak aukera izan-

go du azaroaren 21eko finalean parte hartzeko. Izena emateko epea azaroaren 14an amaituko da. Aritz Nuñez Gazte Lokaleko hezitzaileak lehiaketaren inguruko xehetasunak azaldu ditu.

"Andoaindarrak izar"**Zein helburu du Talentu lehiaketak?**

Andoaingo Udaleko Euskara lan sailak, euskararen eguna dela eta, gazte lokalekooi zerbait antolatzeko aukera eman zigun. Herriko elkarte ezberdinek antolatu ditugu ekintzak (bertso eskolakoek, guraso elkarteek...), baina guri, gazteen erreferente garenez, gazteei begirako talentu lehiaketa egitea bururatu zitzaigun. Telebistako "Tu sí que vales" lehiaketan oinarrituta dago eta horrekin helburu bikoitza lortu nahi dugu; batetik, euskaraz egingo denez hizkuntza sustatu eta bultzatzea, eta bestetik, partaidetza bultzatzea. Eta, noski, ondo pasatzea.

Nori dago zuzenduta?

12-18 urte bitarteko gazteei. Kanpaina ikastetxeetan egin dugu, batik bat. Bestalde, parte hartzaileen bila elkarte batzuetara ere joan gara zuzenean: Soinuak musika eskolara, musika tresnak jotzen dituzten gazteei tentatzeko; bertso eskolara, Urki dantza taldera...

Lehiaketa irekia da. Izan daiteke malabareekin ibiltzea, bakarrikzeta saioa egitea, magia, bertsotan aritzea... Berez, oso-oso irekita dago, baina egia da orain arte izena emadako gehienek musika instrumenturen bat jo edo dantza egingo dutela.

Azaroaren 21ean hautaketa frogaz egingo duzue. Zein asmorekin?

Bai, hautaketa frogak lokalean egingo dugu eta irekia izango da. Ideia filtro bat pasatzea da: bateren batek luzeegia egiten badu mozteko proposatuko diogu, lehiaketa serio hartu ez dutela ikusten badugu ez diogu finalera joaten utziko, partaide asko badaude kopurua mugatu beharko dugu... Hala ere, politena hautaketa frogan sartzen direnak zuzenean finalera joatea litzateke.

Hautaketa frogak pasatzen dutenak, finalean lehiatuko dira azaroaren 28an, Basteron.

Bai. Ikusgarria izateko bideoen bat proiektatuko dugu, musika jarri... Guzti horrekin batera, aurkezle bat arituko da saioa gidatzen eta hiru lagunek osatutako irabazlea izendatzeko epaimahaia egongo da. Oraingoz ez dakigu zein izango den; baina, agian, herriko kirolariren bat edo dantzariren bat izango da.

Zer espero duzue? Animatuko al dira gazteak?

Oraingoz zortzik eman dute izena, batzuk bakarka eta besteak taldeka. Batek saxofoia joko du, beste batek pianoa, taldeka funky dantza egingo dute... Dena den, partaidetzarena landu beharreko gaia da; Gazte Lokalean 14 urte daramatzagu, eta beti partaidetzarekin borrokan ibiltzen gara. Nerabeei kosta egiten zaie proposatzen ditugun ekintzatan parte hartzea, baina oraingoz batzuk izena eman dute eta saiatuko gara gehiago erakartzen. Gainera, arlo gehiagotan ere erakarri nahiko genuke, ez soilik musikan. Horrela, lehiaketa aberatsagoa izango da.

Gazteak erakartzeko amua saria izaten da sarritan, kasu hone-tan egongo al da saririk?

Bai, bonoen bitartez Andoaingo dendetan kontsumitzeko



Maite, Adela, Rania..., Gazte Lokaleko hainbat erabiltzaileentzat gau dibertigarria igarotzeko aitzakia da Halloween festa.

Lehiaketa irekia da. Izan daiteke malabareekin ibiltzea, bakarrikzeta saioa egitea, magia,...

aukera emango zaio irabazten duenari. Ziurrenik 150-200 euroko erosketa bonoa izango da.

Zein mezu helaraziko zenieke gazteei?

Ea herrian eta gazteen artean daukagun partaidetzaren arazotxo hori zuzentzen dugun lehiaketa honekin. Anima daitezela, ekar ditzatela gurasoak eta lagunak, guztien artean ederki pasako dugu. Ez deza-tela lotsarik izan.

Halloween festa

Maite Urruzuno, Adela Moldovan eta Rania Elouafa Gazte Lokale-ra maiz joaten diren Andoaingo gazteak dira. Ez zuten galdu nahi izan bertan ostiralean antolatu zen Halloween gaua. "Erakartzen gaituen festa da Halloweenena, dibertigarria da benetan. Aitzakia bat da lagunekin bildu eta elkarrekin afaltzeko. Ia egunero etortzen gara Gazte Lokalera eta hemen-txe ospatu genuen jai hau ere. Afaldu, eta gero jaiatzatzen jarraitu genuen, lokalean nahiz herrian".

Hiru lagunek, Halloween jaiak ukitu gotikoaz jantzita ospatu nahi izaten dute, Raniak aitortu zuen bezala: "estilo goti-

"Estilo gotikoa gogokoa dugu; pintura ilunak ekarri ditugu, afaldu ostean aurpegiak margotzeko"

koa gogoko dugu; pintura ilunak ekarri genituen, gero afaldu ostean aurpegiak margotzeko". Andoaineko ohitura hori ez dago sustraituta eta pena ematen die. Vianan (Nafarroa) jaioa da Adela Moldovan, eta hango gazteak hartu zituen go-goan: "han bai daukatela ohitura! Etkez etxe ibiltzen dira gu bezalako gazteak, goxokiak eta biltzen dituzte eta ederki pasatzen dute. Ea hemen ere noiz-bait hartzen duen indarra Halloween ohiturak!".

Hilabete morea

Gazte lokalean hiru jarduerak burutuko dituzte laster:
Ligodromoa, tailerra
Azaroak 7, ostirala. 18:30.

Urteurrena datorren asteburuan

XIV. urteurreneko ospakizunak datorren asteburuan:
Irteera
Irrisarriland abentura parkea, tirolina luzeena duena.

Beldur Barik, bideoak
Azaroak 13, osteguna. 18:00.
Autodefentsa ikastaroa
Azaroak 14, ostirala. 18:30.

Bidaia: 15 euro.
Azaroak 15, larunbata.
Merienda
Gazte Lokalean bertan
Azaroak 16, igandea.

Gaztetxearen urteurrena

Azaroak 7, ostirala
19:00 Bizikleta martxa. Kalejira Gaztetxetik Goiko plazara.
Azaroak 8, larunbata
18:00 Haurren eguna. Ipuin kontaketa eta txokolate jatea.
Azaroak 9, igandea
09:30 Mendi irteera Leitzarandik Goibururua.
19:00 Antzerkia: "Amets zirkoa salgai".

Azaroak 13, osteguna
21:30 Bertso afaria: Xamoa, Mantxi eta Amaia Agirre.
Azaroak 14, ostirala
22:30 Kontzertua: Estricalla, Hilkar.
Azaroak 15, larunbata
18:30 Dantza poteoa Kataluniako eta Axeri dantza-kideekin.
22:30 Kontzertua: Kauta, Herena.

Lehen Herri Batzarra hainbat eragileren parte hartzearekin



Juanita Alkain plazan bildu ziren Andoaingo herri eragileak.

Lehen Herri Batzarra ospatu zuten Andoaingo zenbait gizarte mugimenduk Juanita Alkain plazan, larunbat arratsaldean "Krisiaren aurka, antolaketa eta borroka" lemapean.

Bilkuran zehar parte hartzaile askok hartu zuen hitza eta parte hartze gehienetan mundu mailako, eskualdeko zein Andoaingo errealitatea izan zuten aztergai.

Deitzaileek adostu duten idatzia irakurri zuten lehenengo eta behin. Herri boterearen gunea eraikitzeak asmoa agertu zuten, "langileok bizitza politikoan parte har dezagun". Andoainera begira jartzen dira, lehenengo eta behin: "mila langabetutik gora izateak, etxe desjabetzea eta lan faltari gehiturik, etorkizunarekiko itxaropen eza eragiten du herriarengan. Familietan egoera oso gogorak pairatzen ari dira".

Herritar bakoitzak jasaten dituen arazo horiek banakakoarena izatetik haratago, klase sozial oso baten arazo direla azpimarratu zuten. Alde horretatik, sistema kapitalista jarri zuten gaur egun gizartearen nagusi diren makina bat injustizien iturburu. Euren ustetan, "kapitalismoa langabezia baliatzen da langileekiko esplotazioa handitzeko. Dagoen lan eskaera eskaintza baino askoz handiagoa izateak, beste edozein produktu bezalaxe beronen merketzea dakar, kasu ho-

DEITZAILEAK:
Andoaingo Ernai, Duintasuna, Eguzki, Kalera-tzeak Stop, TOPA Osa-sun Publikoaren alde, Belabieta, Activate eta EGFH

netan langileon lan baldintzak". Gaitasun kritiko eta klase kontzientziarik gabeko gizarte handi bat sortu izana leporatu zioten sistema horri; "itxurakeria hutsean oinarritutako gizarte bat eratu du, itxura faltsu honen atzean daudelarik benetako arazo eta dramak". Itxaropenerako mezua zabaldu nahiz izan zuten halerre: "pixkanaka pixkanaka gizartea esnatzen ari da, txinpartak pizturik dirau" zioten.

Idatzian zehar, batzarraren bultzatzaileek Andoainen zer egiteko asmoa daukaten adierazten dute: "gune honek aurrera jarraitzen badu, Andoaingo langilegoak elkarturik jardunez, herri boterea praktikara pasako dugu, asko baikara eta guztiok batera eraginkortasunez ariko baikara herrian emango diren injustizia guztien aurrean. Gutako bakoitzak erantzukizun osoa izango baitu benetazko demokrazia garatzen".

Ildo horretatik, etorkizunari begirako erronka berezia jarri zuten batzarkideek: Andoaingo gizarte eta kultur taldeak zein herritarrak abian jarri berri den ekimenera erakartzea.

Zaborra, ura eta hainbat zerbitzuren tasak erabaki dituzte

Tasa eta zerga berriak hizpide Udal batzaraldian



Legegintzaldi honetan ika-mika handiak sortu dira alderdien artean, tasa eta zergei dagokienez.

Zaborren eta uraren Udal tasekin sortu ziren ika-mika beroenak alderdien artean, joan den hilaren 21ean egin zen Udal batzaraldian. Orduan bozkatu zirelako 2015erako ordenantza fiskal berriak.

Alderdiek eztabaida latzak piztu dituzte euren artean uraren eta zaborraren kontura legegintzaldi honetan, eta bide beretik joan zen batzaraldia. Udal gobernuaren proposamenak oposizioa hiru alderdien kritika zorrotza jaso zuen.

PSE-EEko bozeramaile **Mai-der Lainez**ek proposamenak berearekin zekartzan aldatuta guztiei ezezkoa eman ziela adierazi zuen, hitza hartu eta beherala. Hiru arrazoi azaldu zituen, funtsean: Udal gobernuak bosgarren edukiontzia ez bultzatu izana, krisi garaian zergak igotzea neurri desegokia izatea, eta kutsu elektoralak edukitzea (hauteskunde aurreko azken urtean Udalaren zorrak kitatzeko modua izatea, alegia). PPko **Asun Guerra** zinegotziak ere ildo beretik jo zuen, ezezkoa iragarritz.

Azkenik, EAJ-PNVko ordezkari **Andoni Baltasar**rek hainbat argudio adierazi zuen, proposamena kritikatzeko. Honakoa, besteak beste: IPC-KPIaren igoera ez kontuan hartzea; zerga eta tasak progresiboki ez igo izana orain hamar urtetik hona datorren arazoa izan arren; desegokia izatea urte bakarrean hainbesteko igoera ezartzea; Udalaren egoera ekonomiko larria andoaindarren bizkar jartzea... Kritikak kritika, Baltasarrek iragarri zuen bere alderdiak abstentzio kriti-

ko eta eraikitzaile joko zuela proposameneko zati gehienetan.

Ana Carrere alkateak oposizioa alderdiei oposizio eraikitzailea ez baizik suntsitzailea egitea leporatu zien. Alegia, aztergaiak Udal batzaraldiaren eraman aurretik eztabaidatzeko denbora izan ohi dela, baina uko egiten diotela aukea horri.

2015ERAKO IGOERAK

Horrenbestez, aurrera egin zuten Udal gobernuak udalbatzarrean eramandako proposamen gehienek.

- Zabor tasak eta estolderia %10eko igoera. Zergadunek 86,40 euro ordaindu behar dituzte, iaz baino 7,80 euro gehiago. Lantegietan eta merkatalguneetan kopuru berbera jarraituko dute ordaintzen.
- Urari dagokion tasa %5a igoko da gutxieneko kontsumoa (30 metro kubiko) gaintzen duten etxeentzat.
- Allurralde kiroldegiko zerbitzua: Familiarrak 240 euro urteko, eta 158 euro gizabakoak. Gainera, kiroldegirako sarrerak, solariumak, saunak, udako ikastaroak eta areto futboleko izenemateak ere igo egingo dira.

LIBURUTEGIEN KANONA

Tasen eta zergen ostean, liburu maileguagatik liburutegi publikoak ordaindu beharreko kanona bertan behera uztea eskatzen zuen mozioa aurkeztu zuen Bilduk. Madrilgo gobernuak abuztuan onartutako dekretua zuen hizpide proposamenak. Horren arabera,

2016ko urtariletik aurrera, 5.000 biztanletik gorako udalerrietako liburutegi publikoek egile edo editorren elkartei kanon bat ordaindu beharko die, maileguan utzitako liburu bakoitzeko edo erregistratutako erabiltzaile bakoitzeko. Liburutegiaren zerbitzu publiko horren biziraupena kolokan jarriko dela azpimarratu zuen Bilduk. EAJk eta PSE-EEK bat egin zuten proposamenarekin; kontra bozkatu zuen PPko ordezkariak, kanona Europatik heldu den agindua dela esanez.

TXIROTASUN ENERGETIKOA

Azkenik, PSE-EEren txirotasun energetikoaren aurkako mozioa eztabaidatu zen Udal batzaraldian. Hainbat familiak, etxean oinarrituko baldintzatan bizi ahal izateko behar duen argindarra ordaintzeko ezintasunari deitzen zaio txirotasun energetikoa. Estatuan, jada zazpi miloi dira argiaren edo gasaren fakturei erantzuteko zailtasunak dauzkaten herritarrak, berriki egin den ikerketa baten arabera; EAEn, berriz, laurogeita hamar mila dira egoera berean daudenak.

Mozioak, Foru Aldundiari eta Jaurlaritzari eskatzen die eragile sozialekin batera plangintza diseina dezaten txirotasun energetikoa baztertzeko. Aldi berean, Espainiako Gobernuari ere luzatzen zaio eskaera: berehalakoan, txirotasun energetikoa pairatzen duten herritarren babeserako legea aurkeztu dezala diputatu kongresuan. PSE-EEren mozioa aurrera ateraz, Bilduren babesa jaso eta gero; EAJk eta PPk kontra bozkatu zuten.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

OROIMENAK EZ DU ÑABARDURARIK

Filma jada ikusi dut. Zinemaldian ez nuen ikusi nahi izan; zarata eta itxurakeria asko horrelako filma bat ikusteko. Bakarik ikusi nahi nuen, isiltasunean bai bainekien barne barnean sentitu nahi nuela. Eta horrela izan zen. Aretoan apenas zegoen jenderik, zaratarik ez eta isiltasunean.

Egitura eta teknika aldetik, nahiz eta ez naizen aditua. Ederra, ongi egina iruditu zitzaidan, ongi dokumentatua eta bere gordintasunean ederra. Dokumentu bezala, gertakizuna bere krudeltasun osoz azaltzen da eta bazen ordua horrelako filma oroimen historikoan gordetzeko. Hainbat krudelkeria ezkatu dira gure herri honetan! Ikuslearentzat gogorra da baina meze du benetan gure oroimena astindu eta gure herri honetan gertatu diren krudelkeria hauek guztiak ezagutzera eman ahal izateko. Aitortu behar dut kolpe handia eman zidala, esaterako Tolosako kanposantuan gertaturikoen lekuko izan bainintzen. Sentimenduak, askotakoak alegia, pil pilean azalarazten zaizkizu filma ikusi ahala, baina sentimenduak ere bagara eta, ondoren, hori dena integratzeak aberastasun bat ematen dio bizitzari. Beraz, alde honetatik, gomendagarria da filma.

Halere, eta normala denez, erreakzioak, eta ez sentimenduetatik ideologiatik sortutakoak baizik, ugariak eta mota guztietakoak izan dira. Zenbaiti ez zaie asko gustatu, kontzientzia txarra berpiztu zaielako edo, eta argudio guztiak erabiliko dituzte filmari meritua kentzeko, baina ideologia kontua da eta ideologiaren izenean dena erabiltzen dugu, ñabardurak jartzen dizkiogu. Oroimenari barne.

Lasa eta Zabala: In memoriam



"Gertakizuna bere krudeltasun osoz azaltzen da eta bazen ordua horrelako filma oroimen historikoan gordetzeko"

ekintza, babes hori hor geratu zela. Filmak gertakizun gogor eta krudel bat, inoiz gertatu behar ez zuena azalarazten du. Hori aitortu zidan filmean parte hartu zuen batek. Beraiek filmaren bidez, gertaera hori azaldu nahi izan dute eta, benetan, dokumentu bikaina da. Egia, justizia eta erreparazioa behar dira. Baina hor dago kokxa, oroimenak ere ñabardurak dituela eta biktima oro ez direla maila berean jartzen.

ARGENTINATIK DATOZ NOTIZIAK

Argentinan Servini epaileak hasitako Frankismoaren aurkako prozesu judizialak aurrera darrari. Oraingoan Martin Villa ministro ohiaren estradizioa eskatu du eta honekin batera beste hogeiren batena ere bai. Martin Villa Gasteizen martxoaren 3ko hildakoen erantzulea da. Ondotxo dakit ezen Argentinan ezagutu bainuen Andoni Txasko kereila eman zuena alegia. Honekin batera ezaguna: martin Villarekin batera Utrera Molina, Gallardon Justizia ministro ohiaren aitagarreba, Salvador Antig anarkista kataluniarraren heriotzan inplikaturia. Haren arrebarekin ere Argentinan aurkitu nintzen. Izanen dugu aukera honetaz hitz egiteko. Neu ere guztiz pozik nago Fiskaltzak parte hartu duelako, Argentinakoak alegia. Pozik nago ere Zamorako kartzela irekitzerakoan izan zuten ardura aztertzeke Elizari informazio guztia jaso dezaten eskatu diolako. Neuk eraman nuen kereila hori eta pozik nago gure bidaiak ondorioak izan dituelako. Badoaz garai hartako ekintzak argituz. Bejondeiela Argentinako epaile eta Fiskaltzari.

"Oria ibaia garbitzea, denon ardura"

Hemeroteka: Argia
Martin Vicioso

2434. alea. 2014-10-26

Oria ibaia aparrez bete zen garaia igaro da, baina horrek ez du esan nahi gaur egun erabat garbia denik. Urriaren 11n hura garbitzeko auzolanerako deia egin zuen Andoingo Eguzkik. Azken urteetan gero eta herri gehiagotan sortu dira halako ekimenak. Izan ere, ibaia egoera onean mantentzea gizarte osoaren betebeharra da.

Gipuzkoako industriagune garrantzitsuenetako batzuk Oria ibaiaren magalean kokatuta daude. Besteak beste, horiek sortutako hondakinengatik Euskal Herriko kutsatuen artean egon da urte askotan. Egoera nabari hobetu den arren, bizilagunek eta erakunde ekologistek salatu dute oraindik ere badela zer hobetu. Izan ere, Eguzki talde ekologistak dioenez Andoainen erabilitako uraren erdia araztu gabe Oriara egozten da. 2005ean Europar Batasunak zehaztu zuen zikindutako urek araztegitik igaro behar zutela, baina Eguzkiren arabera erantzukizun osoa ez da erakundeena. Herritarrek ere ibaia garbi mantentzen lagundu dezaten, auzolanerako deiak egin dituzte urtero.

Aurten, urriaren 11n bildu dira Andoainen elkarlana aurrera eramateko. Ibaiaren eta uraren egoera hobetu behar dela aipatzeaz gain, erreka inguruko eremuak zaindu beharraren garrantzia azpimarratu dute. Leitzaranen aisialdirako egokitutako guñeak, Otieta eta Olazar esaterako, behar bezala zaindu gabe daudela aipatu dute. Berezikki udara amaitzean, plastiko zaharrak eta alde batera utzitako hondakinak

aurki daitezke. Babestutako biotopoa izanik, premiazkoa da egoki mantentzea.

Oria ibaiak Gipuzkoako arro hidrologikorik handiena du, 54 udalerriz osatua. Hala, Oria eta haren adarrak auzolanean garbitzeko saialkerak beste hainbat herritan ere egin izan dira. Besteak beste, Zizurkilen, Ordizian, Tolosan, eta Lasarte-Oria, Zubietan eta Usurbil zeharkatzen dituen eremuan antolatutako garbiketak jardunaldiak azken urteetan. Halaber, ohiko ekintza da Euskal Herriko ibai gehienetan, batez ere gune industrial handiak igarotzen dituzten horietan.

Duela hamar urte konponduta behar zuen arazoak eginbeharren zerrrendatik ezabatu gabe dirau. Andoingo Eguzkik salatu du Eusko Jaurlaritzak ez duela 2004an adostutako dirulaguntza osoa eman. Udalak ere bere ardura duela nabarmendu dute. Diotenez, ur zikinak "Jaurlaritzak eta Aldundiak eraikitako hoditeri orokorrera lotzea bere esku dago".

Adunako araztegia eraikitzearen ondorioz, Alegia eta Andoain artean dauden herri gehienetako ur zikinak araztea lortu da. Hortaz, esan daiteke pixkanaka hobekuntzak eman direla. Hala ere, asko dago egiteko oraindik ere. Zikindutako ura eta hondakinak ibaitik erabat desagerraraztea lan nekeza da, eta gizarte osoari dagokio. Garbiketa ekimenek asko laguntzen dute, batez ere ibaiaren ertzetako hondakinak jasotzeko. Baina ez da ahaztu behar zikinkeria asko lantegi eta etxeetatik etorri beharrean gure arduragabekeriaren ondorioz sortzen dugula. Horregatik, auzolan premiakoa ez kutsatzea da.

NOAUA! REN KULTURALDIA 2014

Azaroaren 7tik 16ra

AZAROAK 7 OSTIRALA
PIANO BAT BERTSOTAN, GUREKIN ABESTU NAHI?
22:00 - Sutegin
Sarrerak Usurbilen: 7€ (Aldez aurretik 6€)
Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta Noauan.
Bazkideek 4€tan Noauan aldez aurretik.

AZAROAK 8 LARUNBATA
EMAK BAKIA FILMA
19:30 - Sutegin
Sarrerak Usurbilen: 7€ (Aldez aurretik 6€)
Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta Noauan.
Bazkideek 3€tan Noauan aldez aurretik.

AZAROAK 13 OSTEGUNA
KATALUNIA HITZALDIA
19:30 - Sutegin

AZAROAK 14 GANDEA
PETTLREN KONTZERTUA
19:00 - Sutegin
Sarrera Usurbilen: 10€ (Aldez aurretik 9€)
Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta Noauan.
Bazkideek 7€tan Noauan aldez aurretik.

Noaua! bordaberri 3 USURBIL 943360321 elkarte@noaua.com



KIROL ALBISTEAK

Mikel Esnaola: “Nire ametsa ACBko talde batean egotea da”

Hogei urte besterik ez ditu Mikel Esnaola urnietarrak, baina dagoeneko urrats sendoak ematen ari da saskibaloian. Orain Galizian dago Ferrol CB taldean jokatzen, eta etorkizunean ABCko talderen ba-

tean egotea amesten du: “*Ezkutuan* ari gara lanean, Espainiako beste muturrean eta inork ez digu arreta handirik jartzen; baina gu gogor ari gara lanean”.

Hogei urte besterik ez ditu Mikel Esnaola urnietarrak, baina dagoeneko pausu handiak ematen ari da saskibaloia munduan. Orain Galizian dago Ferrol CB taldean jokatzen, eta etorkizunean ABCko talderen batean egotea amesten du.

Noiztik duzu gogoko saskibaloia?

12 urterekin hasi nintzen saskibaloia munduan murgiltzen. Kasualitatea izan zen dena; altuera handikoa baina atletismoa nahiago nuen. Egun batean, ordea, ama etorri zitzaidan saskibaloia probatzeko esanez. Nahiz eta nire ama profesionala izan, ez nuen ideiarik saskibaloia buruz, ez nekien amak Espainiako selekzioarekin jokatu zuenik ere.

Hernanin, Eason eta orain Ferrolen jokatzen ari zara. Zer moduzko esperientzia ari da izaten?

Bi hilabete daramatzat hemen eta taldea ligako gazteena da, 19 urteko batatz bestekoa dugu. “*Ezkutuan*” ari gara lanean, Espainiako beste muturrean eta inork ez digu arreta handirik jartzen; baina gu gogor ari gara lanean. Gure helburua Eguberrien ostean emaitzak onak lortzea da.

Zertan aldatu zaizu bizitza kanpoan zaudenetik?

Heldutasun maila batera iristea beharrezkoa da, ez dago beste erremediorik. Pertsona oso irekia izan beharra dago gainontzeko taldekideekin erlazionatzeko. Dena den, ez zait oso gogorra egin kanpoan bizitzea; gainera, familiak asko laguntzen du momentu txarretan.

Zer moduz sentitzen zara taldean?

Oso gustura nabil. Bi edo hiru



Danimarkan jolasten aritu zen aurreko denboraldian.

“16 urterekin hamabost mila pertsonen aurrean mateak egitea ezin da hitzekin azaldu. Aurrerapauso handia izan zen niretzat”

jokalari gara esperientzia profesionala dugunak eta hori irakatsi edo zabaldu egin beharra dugu taldean. Batzuetan erraza da, baina beste batzuetan asko kostatzen da, oso gazteak gara eta.

Urnieta ez al duzu faltan botatzen?

Noski baietz! Nire herria da eta etxean bezala inon ez da egoten. Gainera, lagunak hutsunea asko nabaritzen dut.

Saskibaloiaz gain, ikasten ari zara.

Bai, gaur egun ezin da ikasketarik gabe bizi, Pau Gasol bezalako bat izan beharko zenuke horretarako. Informatika ikasten ari naiz Ferroleko ikastetxe batean.

Nola uztartzen dituzu ikasketak eta saskibaloia?

Gaur egun oso zaila da hau aurrerara eramatea eta maila igotze-

an geroz eta zailagoa bilakatzen da. Zorionez, klaseak arratsaldean ditut eta goizeko entrenamenduetara joan naiteke.

Zenbat denbora eskaintzen diozu saskibaloia?

Egunean, gutxi gora-behera bost ordu eskaintzen dizkiet entrenamenduei, baina, bideoak ikusiz zertxobait gehiago.

Mate txapelketa ere irabazi zenuen. Hori garrantzitsua izango zen zuretzat, ezta?



Informatika ikasten ari da Ferroleko ikastetxe batean.

Bai, noski. Momentu hura bizi ez dutenek, ez dakite zertaz ari naizen hizketan eta nolakoa izan zen bizi nuen sentsazioa. 16 urterekin hamabost mila pertsonen aurrean mateak egitea ezin da hitzekin azaldu. Horrelako momentuak mentalki aurrerapausu handiak dira niretzat.

Zu bezalako jokalaririk batentzat zer da garrantzitsuenak?

Gaur egun, saskibaloian arrakasta edukitzeko fisiko ona edukitzea beharrezkoa da. Baina entrenatzaileak, buru azkarrak jokalariei bila ari dira. Horregatik, fisikoaz gain, buru azkarrak izatea eskatzen digute jokalaririk gazteei; nire postuan jokatzen duten jokalariei, beraz.

Zer da saskibaloia zuretzat?

Saskibaloia bizitzeko modu bat da. Ez da kirol arrunt bat. Saskibaloian zure taldekideekin behar duzun erlazioa izugarria da. Gainera, saskibaloia egunerokoan aurrera nola egin irakasten dizu. Esaterako, harrotasuna neurtzen erakusten du; harroa izatea oso gaizki ikusita baitago kirol honetan.

Noiz disfrutatu duzu gehien zelaian?

Nire ustez, kirolari guztiak partida guztietan disfrutatzen saiatzen gara. Zoritarrez, hori ez da beti gertatzen, baina esan dezaket Danimarkan jokatu nituen partidak hobereak izan zirela. Profesional maila izugarria da eta niretzat aukera ikaragarria izan zen.

Zein partidua duzu gogoan?

Danimarkan jokatu genuen Play offaren finala 21 urte azpiko taldearekin. Vearlouse izena zuen taldearen aurka jo-

“Felix Banobre da orain daukadan entrenatzailea eta izugarria da, horregatik nago hemen orain”

katu genuen. Beraiek ziren partida irabazteko aukera gehien zutenak, baina gauzak aldatu egin ziren. Ez nuen espero horrelako partida jokatzea. Danimarka osoa harrituta geratu zen guk irabazi genuelako.

Zein entrenatzaile izan da berezia zuretzat? Zergatik?

Egia esan, zorte handia izan dut entrenatzaileekin. Danimarkan nuen entrenatzaileak asko zaindu ninduen eta mentalki hazi egin nintzen berari esker. Orain daukadan entrenatzailea ere izugarria da, horregatik nago hemen orain. Felix Banobre du izena eta Espainia mailan entrenatzaile azkarrarenetakoa da.

Jokalariren bat baduzu zure idolo bat har dezakezuna?

Bai, noski. LeBron James du izena. Munduan dagoen jokalaririk onena da, izan ere, denetarik egin dezake; 1'50-2'10 metro neurtzen duten jokalariei defentsa lana egin diezaioke. Gainera, bere fisikoak konparazina da.

Zein asmo duzu etorkizunerako?

Nire asmoa bi-hiru urtez hemen jokari eta pertsona bezala haztea da. Entrenatzailearen asmoa bi edo hiru jokari maila altuetara eramatea da, baina horretarako, lan handia egin beharra dugu.

Zein ametsa bete nahiko zenuke?

Nire ametsa ACBn egotea da. Izugarritzat egin beharra dago hori lortzeko, baina zorte onarekin, egi bihur liteke.



KIROL ALBISTEAK

Triatloian emaitza bikainak

Espainiako triatloi txapelketa (3 km igeri, 120 km. bizikletan eta 30 km. korrika) ospatu berri da Lanzaroten. Igandean izan zen eta albiste benetan pozgarriak ekarri dituzte Zumeatarrako kirolariek. **Javi Miguelek** seigarren amaitu zuen elite mailan (06:48:34) eta **Asier Septienek** bigarren egin zuen 20-24 urte bitarkoen mailan (09:00:17). Oso denbora ona egin zuen Paul Vilumbrales irundarrak ere (07:59.14).

Andoainen dagoen kirolaririk handienetakoa da Javier Miguel triatloilaria, eta sasoi betean dabilela erakutsi du beste behin, Lanzaroten Espainiako triatloi txapelketan 6 ordu eta 48 minutuko denbora eginda seigarren sailkatu baitzen. Lanzaroten bertan harrapatu dugu lehiaketaren ostean, oporraldi txikiak gozatzen, emaztearekin eta haurrearekin batera.

Gustura Espainiako txapelketan seigarren geratuta?

Javier Miguel: 400 partaideetatik seigarren geratu nintzen eta pozik egoteko arrazoiak badauzkat. Are gehiago, kontuan hartzen bada oso baldintza gogorretan egin genuela lasterketa (bero zakarra, haizea...), eta faborito asko erretiratu egin zirela ikusita. Hala ere, beti geratzen zaizu gehiago egin zenezakeen sentsazioa. Gauzak joan ziren bezala, posturen bat edo beste aurrerago iritsi nintekeela uste dut, bosgarrenetik bost segundura geratu bainintzen, eta podiumetik, berriz, lau minutura bakarrik.

Hiru proben inguruko kronikatxoak egingo al zeniguke?

J.M.: Igeriketan hamabosgarren iritsi nintzen. Gero bizikletarekin eduki nituen gora beherarik handienak. Zazpigarren jarri nintzen 40. kilometroan, baina hortik aurrera, gauzak okertzen hasi zitzaizkidan. Normalean nire atzetik joan behar zutenek ere aurrea hartzen zidaten; ezin nuen ulertu, indar betean bainindotan. Halako batean, ordea, igarri nuen zer geratzen zen: matxura nuen atzeko kurpilean. Amorrutik betean egin nituen bi-



Javi Miguelek seigarren amaitu zuen elite mailan.

zikletaren gainean geratzen zitzaizkidan kilometroak. Hamabigarren utzi nuen bizikleta. Lasterka dena eman nuen, eta seigarren amaitu nuen azkenean.

Faborito asko erretiratu egin zirela aipatu duzu...

J.M.: Inork ez zuen espero halako baldintzatan lehiatu behar izango genuenik, eta egia esan, helmugaratu ginen guztiok aurrez kalkulaturako denboratik gainetik, ordu erdi edo 40 minutu gainetik ibili ginen. Bide bazterrean kirolari on asko geratu ziren, pott eginda. Orain hotzean pentsatzen jartzen naizenean, nire buruaz harro egoteko arrazoiak badauzkadala iruditzen zait. Izan ere, eguraldiari eta bizikletaren matxurari aurre egiten jakin nuen. Burugogorra naiz, eta unerik zailenetan ezaugarri horrek aurrera egiten laguntzen dit.

Iruñeko Saltoki Trikidetako taldearekin lehiatu zinen.

J.M.: Espainiako txapelketa es-

“Taldekako txapela esku-ratu genuen, hiru taldekide aurreneko hoge postuetan sartu ginelako”

kuratu genuen, hiru taldekide aurreneko hoge postuetan sartu ginelako. Ezin gehiago eskatu!

Eta hemendik aurrera, zer?

J.M.: Probaren ostean, oporretan geratu gara emaztea, haurra eta hirurok Lanzaroten. Baina berehala, ostegunean Andoainera itzuli eta ostiralean lantokira noa berriro. Donostiako maratolari begira ekingo diet entrenamenduei, eta ondoren astebeteko atsedena hartuko dut, oso gogorra izan baitira azken asteak; bolumen handiko entrenamenduak, oso denbora gutxian. Helburu nagusia, 2015ko otsaileko Espainiako txapelketara sasoi onean iristea izango da.

Datorren Aiurri astekarian:
Asier Septien txapeldun-ordea



Kerman haurrearekin egin zituen probaren azken metroak.

Andoaingo Mendizale Astearen 50. edizioa

Azaroaren 10ean hasi eta 16ra bitarte Euskalduna Mendigoizale elkarteak mendi astea antolatuko du. Honakoa izango da egitaraua:

Azaroak 10, astelehena

20:00 Iñaki Alkain, Annapurnan trekkinga.

Azaroak 11, asteartea

20:00 Aitor Igiñitz, hiru urte Himalayan zehar bizikletaz.

Azaroak 12, asteazkena

20:00 Bazkideen ohiko batzar orokorra.

Azaroak 13, osteguna

20:00 2014an zehar egindako jarduerak.

Azaroak 14, ostirala

20:00 *Western Europe mountain route*: 4000 kilometro oinez, bizikletan eta patinetan.

Azaroak 16, igandea

Amezketako Urreko haitzak Azkarate-Betelu mendi ibilbidea. Ondoren, babarrun jatea Betelun. 35 euroko prezioa, ize-na emateko azken eguna azaroaren 12a da. Kontuan diru sarrera eginez.

Pala motzean Urnieta Gipuzkoako final aurrekora

Txost 16-40 Urnieta

Aitor Argiñarena-Beñat Txapartegi

Pala motza, seniorrak. Gipuzkoako txapelketako azken jardunaldia estu iritsi ziren hiru talde. Urnietak berea irabazi eta Real Sociedad taldeak bere partidari 34 puntu ez egitea, horietatik ziren final aurrekora sailkatzeko gertatu behar zena. Urnietak partida irabazi eta Real bere partidari 28 tantotan geratu zenez, ber-

dinketa hirukoitzean Urnieta sailkatu da.

Urnietako 18-16 Doneztebe

Jon Alberdi-Imanol Odriozola

Eskuz binaka, kadeteak. Partida gogorra, eta luzea! Ia ordubeteko saioa behar izan zuten aurkariak gainditzeko. Zizurkilgo txapelketan Urnietako bikoteak denboraldi-ko partidari onena egin zuen.

Areto futbol txapelketa

5. Jardunaldia

Centro	3-2	Txalaka
Ekaitz	3-6	Academia
Ekhia	1-1	Aure Maiton
Galpasitx	12-1	Pausoka
Hogar	12-3	Ondarreta
Keler	8-3	OZU

Sailkapena

1 Centro Extremeño	15
2 Keler	12
3 Ekhia	11
4 Aure Maiton	10
5 Ekaitz	9
6 Galpasitx	8

Preferente mailako futbola

7. jardunaldia:

Euskalduna	1-2	Baskonia
Urnietako	1-2	Urnietako
Asteburuko partidak:		
Lengokoak-Euskalduna		
Urnietako-Sanpedrotarra		

Sailkapena:

1. Urnietako	19
2. Orioko	16
3. Lengokoak	14
5. Euskalduna	12
6. Dunboa	12

Andoain-Urnietako eskubaloian

1. Maila. 4. jardunaldia:

Eibar	26-27	Leizaran
Urnietako	23-21	Gabaz
Asteburuko partidak:		
Leizaran-Urnietako		

Sailkapena:

1. Aloña Mendi	6
2. Donibane	6
3. Usurbil	6
4. Urnietako	4
8. Leizaran	2

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRA-BURUNTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.com. Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.com

Erredaktoreak:

Xabier Lasa, Izarne Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.com

Publizitatea:

Fernanda Irazu. publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com. www.aiurri.com. **Lege Gordailua:** SS-1078/04. **ISSN:** 1698-4870. **Tirada:** 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.com. Tel.: 943 300 732

Banatzaiak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan). **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

AZAROAREN 6TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- “Loreak”. 19:30, 22:00. Azaroak 8, larunbata. 19:30. Azaroak 9, igandea. 19:30, 22:00. Azaroak 10, astelehena.
- “Los 5. La isla del tesoro”. Azaroak 8 eta 9. 17:00.

Urnietan, Sarobe

- “Tarzan” (3D). 16:00, 18:30. Azaroak 9, igandea.
- Datorren asteburuan: “Como entrenar a tu dragon 2”.

Hitzaldia

Urnietan

- “Mexiko izugarria da”, Joxeba Lizeagaren eskutik. Azaroak 12, asteazkena. 19:00, Gaztegunea.

Bazkariak

Andoain

- 1959an jaiotakoak. Azaroaren 12a baino lehen 60 euroko diru sarrera egin behar da Kutxan, eta ordainagiria Urkiolan aurkeztu: 2095 5022 13 1074154237. 14:30 Bazkaria Txertotan. Azaroak 15, larunbata.
- 1974an jaiotakoak deituta. 21:00 Afaria Oianumen. Azaroak 22, larunbata.

Ludoteka

Urnietan

- Astelehenetik ostegunera Arantzubini. 17:00-19:00. Azaroaren 6ra arte. 943 008 033. ludoteka@urnieta.org

Dantza

Andoain, Bastero

- “Itsasoaren emazteak” dantza ikuskizuna Oinkari taldearen eskutik. 21:30. Auditorioa. Azaroak 7, ostirala.

Urnietan

- Dantza afrikarrari buruzko ikastaro trinkoa, egun osoz. Info: 3. orrialdea. Azaroak 15, larunbata.

Irteera

Andoain, Ludoteka

- “Larunbatean euskaraz” ekimenekoekin “Irrisarriland” gunera irteera. Izen-ematea: 943 592 181. Azaroak 22, larunbata.

Foroa

Andoain

- Martin Ugalde foroa, Berriak antolatuta. Anjel Lertxundi eta Joan Mari Torrealdai solasean. 19:00. Kultur parkea. Azaroak 11, asteartea.

Bilkura

Andoain

- Andoaingo I. Moto bilkura. 09:30 Gosaria Lanbroan. 14:30 Bazkaria Azkoitian. 20:00 Musika Olajaunan. Azaroak 8, larunbata.

Talo jatea

Urnietan

- Pausoka elkartaren alde, Xauxarren parean. 18:30etan hasita. Azaroak 8, larunbata.

Aisialdia

Andoain, Sorabilla

- Ipuinak eta musika uztartzen dituen emanaldia. Ondoren, gaztain jatea. 17:00. Elizaren aterpean. Azaroak 9, igandea.

Tailerrak

Urnietan, Lekaio

- Edergintza tailerra: 635 719 950. Azaroak 6 eta 13.
- Udal antzerki tailerra azaroaren 14tik aurrera. Argibideak: 3. orrialdea.

Gazteak

Andoain, Gazte Lokala

- Irteerak, tailerrak..., jardue-ugari datozen asteetan. Argibideak: 7. orrialdea.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Azaroaren 3an **Nahia** 16 urte edertze zituen. Mila kilo zorion Asier, Alaia, aitoa, amama eta Junen partetik. **ANDOAIN**

ZORIONAK



Zorionik beronenak zure ahizpa Nahia, Asier, Alaia, amama eta aitonaren partez 11. urtebetetxean. **ANDOAIN**

ZORIONAK



Urriaren 22an jaio zen **Aritz Telleria**, nire lehengusua txikia. Ongi etorri! Zorionak osoba eta izeba!! **URNIETA**

ZORIONAK



Azaroaren 2an, amona **Izaskunek** eta izeba **Ixiarrek**, urteak bete zituzten. Jarraitu orain arte bezain zoriontsu!!! Muxu bana denon partetik, bereziki etxeko bi txikiaren partetik. **ZIZURKIL-ANDOAIN**

ZORIONAK



Naroak azaroaren 5ean 9 urte bete zituen. Zorionak etxeko printzesa! Muxu handi bat, gurasoen partetik. **URNIETA**

ZORIONAK




E! Ni **Intza** naiz. Gaur, azaroak 3, nire urtebetetze eguna denez poz-pozik nago! Eta zuek? Muxu pila bat! **ANDOAIN**

ZORIONAK




Maria Aizpuruak 10 urte bete zituen urriaren 29an. Zure Andoaingo osaba, izeba eta lengusuak. **ANDOAIN**

ZORIONAK



Igor etxeko futbolari handiaren ari zaigu! Azaroaren 7an 6 urte. Muxuak. Etxekoak. **ZIZURKIL ANDOAIN**

ZORIONAK



Azaroaren 3an **Aimarrek** 3 urte bete berri ditu. Zorionak eta muxu handi bat aita, ama eta Oier. **URNIETA**

ZORIONAK



Zorionak **Unax!!** Aurreko larunbatean, azaroak 1, 4 urte bete zenituen; muxu potoloak etxeko partetik. **URNIETA**



Mexiko izugarria da

Hitzaldia

Azaroak 12, asteazkena

19:00 Gaztegunea

Hizlaria:

Joxeba Lizeaga



GazteguneaUrnietan



Idiazabal, 13 / behea
20130 Urnietan (Gipuzkoa)
Tel.: 943 333 973
gazteinformazioa@urnieta.org